

txinpart aldizkaria (oiartzun)

Haurtzaro ikastola


GPS arekin egindako lanaren berri



Kutxak ikastolari mailegu modura utzitako tresna



Kutxa eta Naturgaia S.L.ren eskutik, Ikastolako GPS taldetxoa sortu da



Kutxak eta Naturgaia elkarteak babesturiko Berde-Berdea proiektuaren laguntzarekin 2006-07 ikasturtean zehar irakasle batzuek MOODLE plataformaz baliatuz, GPS ikastaro ON LINE bat egin zuten.

Formazio horren emaitzak jadanik disfruta eta erabil ditza-kegu, beste irakasle, ikasle zein gurasook. Besteak beste, ikasleekin batera egiten ditugun zenbait ibilaldi GPS tresnaz jaso eta ordenadorez editatu ditugu, ondoren, Google Earth delako softwareaz ikusgai jartzeko asmoz. Lan horren emaitzak ezagutzeko Oiartzun ibaiaren inguruan egindako lantxoa azpiko web helbidean jaso dago.

Mila esker, langile eta KUTXArri !

<http://www.naturgaia.net/gpstxokoa/index.php?id=2>

2007ko Berde-Berdea festako sari banaketa

Azkenik, urriaren erdialdean, Naturgaia Elkarteak antolatutako Berde-Berdea programaren festako sari banaketan DBH-3.mailako ikasleek parte hartu zuten.

2006-07an Haurtzaro Ikastolako ikasleek egindako lanaren fruituak eragindako dirua Jon Atxagak, DBH-3Ako ikasleak, KALAPIE elkarteari entregatu zion.



Jon Atxaga ikasleak KALAPIE Elkarte-ko lehendakariari SARIA eman zion.

